

eman ta zabal zazu




Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# Gizarte Hezkuntza Gradua

**Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea**

**DONOSTIA / SAN SEBASTIAN**



## **IV Modulua**

# **Gizarte eta Hezkuntzako Programen Plangintza, Kudeaketa eta Ebaluazioa**

**Moduluko gida**



## INDICE

<b>1. MODULUAN GARATU BEHARREKO KONPETENTZIAK .....</b>	<b>4</b>
1.1. OINARRIZKO KONPETENTZIAK.....	4
1.2. GARAPEN IRAUNKORRERAKO KONPETENTZIAK .....	4
1.3. GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK (GIH) .....	5
<b>2. MODULUKO IRAKASKUNTZA EMAITZAK .....</b>	<b>6</b>
2.1. IRAKASKUNTZA EMAITZ OROKORRAK .....	6
2.2. GARAPEN IRAUNKORRERAKO IRAKASKUNTZA EMAITZAK .....	6
<b>3. MODULUAREN IRAKASGAIK .....</b>	<b>7</b>
<b>4. MODULUA ANTOLATZEN DUTEN EGITURA ETA LOGIKA .....</b>	<b>8</b>
<b>5. MODULUKO DIZIPLINARTEKO LANA (DILANA) .....</b>	<b>9</b>
5.1. GAUZATU BEHARREKO ZEREGINA .....	9
5.2. IKASGAIK DILANARI EGINGO DIOTEN EKARPENA.....	10
5.3. DILANA GAUZATZEKO JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA .....	11
5.4. TXOSTENAREN EGITURA .....	13
<b>6. DILANA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK.....</b>	<b>14</b>

## 1. MODULUAN GARATU BEHARREKO KONPETENTZIAK

### 1.1. OINARRIZKO KONPETENTZIAK

- 4C1. Esku hartzeko prozesuekin zerikusia duten gizarte eta hezkuntzako planifikazioaren, kudeaketaren eta ebaluazioaren oinarri teorikoak ezagutzea, eta baita arlo horri gizarte eta hezkuntzako ikerketek egindako ekarpenak ezagutzea ere.
- 4C2 Hainbat ereduren arabera eta hainbat testuingururen funtzioaren arabera, beharrak zehaztea, esku hartzeko programak planifikatzea eta ebaluatzea, eta horretarako tresna egokiak erabiltzea, kode profesional etikoen errespetuan oinarrituta.
- 4C3. Esku hartzeko testuinguru espezifikoei buruz eragin handiena duten prozedurak eta teknikak hautatzea, proposamen metodologikoak egiteko.
- 4C4. Hezkuntzan ikerketa-ereduak bereiztea, eta horiek aplikatzen sortzen den informazioa erabiltzea plangintzako, kudeaketako eta ebaluazioko lanak ebatzeko, testuinguru errealetan.
- 4C5. Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeak planifikatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko baliabide teknologikoak erabiltzea, tresna bideratzaile eta malgu gisa ulertuta.
- 4C6. \*Gizarte eta hezkuntzako gaiei buruzko ideiak, argumentuak eta abar ahoz komunikatzen jakitea eskoletan bertan edo tresna teknologikoak erabilia, eta informazio hori txostenetan idaztea.
- 4C7. \* Moduluko ikasketa-jarduerak eta -lanak egiteko jarrera positiboa erakustea

\* Izartxoarekin adierazitako gaitasunak zeharkako gaitasunak dira.

### 1.2. GARAPEN IRAUNKORRERAKO KONPETENTZIAK

- G1K1. Ezagutzaren testuinguru kritikoa ezartzea, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-arazoeikiko, tokiko arazoeikiko eta/edo arazo globalekiko loturak ezarriz.
- G1K2. Baliabideen erabilera iraunkorra eta natura- eta gizarte-ingurunearen gaineko inpaktu negatiboen prebentzioa.
- G1K3. Iraunkortasuna sustatzen duten prozesu komunitarioetan parte hartzea.
- G1K4. Iraunkortasunaren balioespenekin lotutako printzipio etikoak aplikatzea portaera pertsonaletan eta profesionaletan.

## 1.3. GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK (GIH)

	<p><b>POBREZIA DESAGERTZEA</b> 1. helburua. Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.</p>	<p>Funtsezko gaiak: muturreko pobrezia amaitzea, pobrezia eta ahultasuna jaitea, babes soziala, oinarrizko zerbitzuetara heltzea, pobreen eta ahultasun-egoeretan dauden pertsonen erresilientzia sustatzea, garapenerako lankidetzak, araudi-esparru sendoak.</p>
	<p><b>KALITATEZKO HEZKUNTZA</b> 4. helburua. Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.</p>	<p>Funtsezko gaiak: doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa hezkuntza, goi mailakoa hezkuntzara berdintasunezko sarbidea, garapen jasangarrirako hezkuntza, desgaitasun bat duten pertsonentzako hezkuntzako instalazioak, ikaskuntza-ingurune seguruak, indarkeria gabeak, inklusiboak eta eraginkorrak.</p>
	<p><b>GENERO-BERDINTASUNA</b> 5. helburua. Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.</p>	<p>Funtsezko gaiak indarkeria eta diskriminazio modu guztiekin amaitzea, ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea, partekatutako erantzukizuna, aukera-berdintasuna, parte-hartze osoa eta eraginkorra, ugalketa-eskubideak, baliabide ekonomikoetarako eskubide-berdintasuna, lurraren jabetza eta beste ondasunen heltzea.</p>
	<p><b>DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA</b> 10. helburua. Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea.</p>	<p>Funtsezko gaiak: pertsona guztien gizarte-, ekonomia eta politika-inklusioko sustapena, aukera-berdintasuna, berdintasunerako politikak (zergekin, soldatekin eta gizarte babesarekin lotutakoak), migrazioa eta migrazio-politikak, garapenerako laguntza ofiziala, erakundeen eta munduko merkatuen araudia eta zaintza.</p>
	<p><b>HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK</b> 11. helburua. Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.</p>	<p>Funtsezko gaiak: etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak eskuratzeko aukera, garraio-sistema seguru, arrazoizko eta jasangarriak, hirigintza jasangarria eta inklusiboa, kudeaketa eta plangintza parte-hartzailea, kultura eta natura ondarearen babesa, airearen kalitatea, hondakinak, berdeguneak, hiriguneen, hiri-inguruen eta landa-eremuen loturak.</p>

## 2. MODULUKO IRAKASKUNTZA EMAITZAK

### 2.1. IRAKASKUNTZA EMAITZ OROKORRAK

- E11. Proiektua egin nahi den gai jakin bati buruz literatura zientifikoan jasotako informazioa bilatzea, aztertzea, antolatzea eta lantzea.
- E12. Plangintzaren funtsezko elementuak ezagutzea, proiektu batean programazio-teknikak eta -prozedurak zorrotasun metodologikoz erabiltzeko.
- E13. Oinarrizko printzipio metodologikoak identifikatzea, ekintza-metodologiak aukeratzea eta gizarte- eta hezkuntza-proiektua ezartzeko jarduera egokiak antolatzea.
- E14. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen testuinguruan aplikatutako ebaluazio-prozesuak diseinatzea, planifikatzea eta garatzea.
- E15. Proiektuan erabiliko dituzten baliabide digitalak (blogak, sare sozialak, bideoak...) definitzea eta teknologia digitalak txertatuko dituzten ekintza zehatzak diseinatzea.
- E16. Tokiko eremuan gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko PROIEKTUA egitea, oinarrizko bost elementu jasoz: proiektuaren oinarriak, helburuak, metodologia, baliabideak eta ebaluazioa.
- IE7. DILANaren ahozko azalpena antolatzea eta egitea, keinuen bidezko komunikazioa eta euskarri lagungarriak erabilia, edukien sekuentzia egituratua eginda eta erantzuteko eta defendatzeko gaitasuna erakutsita.**
- IE1. Buscar, analizar, organizar y elaborar la información recogida en la literatura científica sobre un determinado tema acerca del cual se pretende realizar el proyecto.

### 2.2. GARAPEN IRAUNKORRERAKO IRAKASKUNTZA EMAITZAK

#### 1. Maila: Ezagutza

- C1.HO.1.2. Tokiko nahiz mundu osoko gizarte-, ekonomia- eta/edo ingurumen-arazoetan inplikaturako kausa, ondorio eta subjektu nagusiak ezagutzen ditu.
- C2.HO.1.1. Oinarrizko ezagutzak ditu hezkuntza-jarduerak gizartean, ekonomian eta ingurumenean izan ditzaketen eraginak identifikatzeko.
- C2.HO.1.5. Ingurumen-inpaktua baloratzeko irizpideak ezagutzen ditu (adibidez: ekitatea, inklusioa, giza eskubideak, genero-ikuspegia, irisgarritasuna, osasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, etab.).
- C3.HO.1.1. Iraunkortasunarekiko partaidetza eta konpromisoa sustatzen duten hezkuntza-proiektu, -programa eta -sare komunitarioak ezagutzen ditu.
- C3.HO.1.2. Iraunkortasun-proiektu batean inplikaturako subjektuen lankidetzak eta lankidetzak sustatzeko teknikak eta tresnak ezagutzen ditu.
- C4.HO.1.1. Ikasleak ere lanbide-eremuan iraunkortasunarekin lotutako arazo etikoak ezagutzen ditu (adibidez, desberdintasuna, kontsumismoa, diskriminazioa).

#### 2. Maila: jakitea nola

- C1.HO.2.1. Ikasleak kritikoki hausnartzen du iraunkortasunaren dimentsioei buruz, bere lanbide-eremuarekin lotutako egoera bat aztertzerakoan.
- C1.HO.2.2. Gizarte- eta ingurumen-arazoen konplexutasuna eta horien konponbideak ulertzen eta aztertzen ditu.
- C2.HO.2.2. Arazo baten aurrean, badaki hainbat hezkuntza-proposamen aztertzen eta ebaluatzen.

- C2.HO.2.4. Iraunkortasunaren printzipio etikoek bere esparru profesionalean dituzten inplikazioak identifikatzeko eta kritikoki baloratzeko gai da.
- C3.HO.2.1. Badaki behar bezala moldatzen komunitateko hezkuntza-prozesuetan, itxaropenak eta interesak identifikatuz eta GJHekiko konpromisoa sustatuz.

### 3. Maila: Erakustea eta egitea.

- C1.HO.3.1. Bere ikuspegi profesionaletik, badaki iraunkortasun-arazoak azaltzen (ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak), eta arazo horiei aurre egiteko metodoak eta estrategiak proposatzen, tokiko mailan (egokitua).
- C2.HO.3.1. Bere lanbide-eremuan proiektu eta jarduera iraunkorrak proposatzeko gai da, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-alderdiak kontuan hartuta.
- C2.HO.3.5. Bere proiektuetan kontuan hartzen ditu eragin soziala baloratzeko irizpideak eta tresnak (adibidez: ekitatea, inklusioa, giza eskubideak, genero-ikuspegia, irisgarritasuna, osasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, etab.).
- C3.HO.3.1. Aldaketa-eragile gisa jarduteko gai da, eta iraunkortasuna sustatzen duten programa eta proiektu komunitarioak planifikatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko prozesuetan parte hartzen du bere lanbide-eremutik.
- C4.HO.3.2. GJHak sustatzeko hezkuntzan esku hartzeko proposamenak diseinatu, planifikatu, inplementatu eta ebaluatu ditzake (kalitatezko hezkuntza, genero-berdintasuna, kontsumo iraunkorra...).

## 3. MODULUAREN IRAKASGAIAK

GIZARTE HEZKUNTZA GIDA OROJORRA (PDF)		GIZARTE HEZKUNTZA WEBGUNEA	
IRASTURTEA	MODULUA	IRAKASGAIAK	ECTS
2	M4- Gizarte eta Hezkuntzako Programen Plangintza, Kudeaketa eta Ebaluazioa	→ Gizarte eta Hezkuntza Ikerketa	6
		→ Esku-hartzearen Plangintza	6
		→ Gizarte eta Hezkuntza Programa eta Zerbitzuen Ebaluazioa	6
		→ Gizarte eta hezkuntzako eta Bazterketa egoeretako esku-hartzea: Proposamen Metodologiko Orokorrak	6
		→ Informazioaren Teknologia eta Komunikazioa Gizarte Hezkuntzan	6

## 4. MODULUA ANTOLATZEN DUTEN EGITURA ETA LOGIKA

Modulu honen bitartez, gizarte-hezitzaile orok gauzatzen dituen oinarritzko funtzio profesionalak lantzen hastea proposatzen da; alegia, hezkuntza-egoeren diagnostikoarekin, hezkuntza-proiektuen eta-prozesuen plangintzarekin eta Gizarte Hezkuntzaren alorretan ezagutza eraikitzearekin zerikusia duten funtzio profesionalak lantzea. Horretarako, hainbat tresna behar dira, hezitzaileak funtzio profesional horiei guztiei aurre egin diezaien, eta gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeen programa bat osatzeko zeregina bidera dezaten. Zeregin horrek, planak, proiektuak eta gizarte eta hezkuntzako programak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko gaitasunak bideratzea eskatzen du.

Moduluak 30 kreditu ditu, nahitaezko 5 irakasgaitan banatuta. Hona hemen berau osatzen duten gaiak:

1. Gizarte eta hezkuntzako ikerketa
2. Esku-hartzearen plangintza
3. Gizarte eta Hezkuntza Programa eta Zerbitzuen Ebaluazioa
4. Gizarte eta hezkuntzako eta Bazterketa egoeretako esku-hartzea: Proposamen Metodologiko Orokorrak
5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, gizarte-hezkuntzan

Modulu hau ezinbesteko zubia da aurrekoen eta hurrengoaren artean. Aurrekoek, hain zuzen, hezkuntzaren alorreko zeinahi profesionalek esku hartzeko moduko testuinguruak, lanbideak eta hezkuntza-prozesuak ulertu ahal izateko oinarri zientifikoak finkatzen dituzte. Hurrengoak, berriz, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen azterlanera hurbiltzen dira, hainbat alorretan. Bide beretik, Gizarte Hezkuntzaren berezko prozeduretan eta funtzio profesionaletan murgiltzen ditu ikasleak; esate baterako, premien diagnostikoan, programen diseinu eta ebaluazioan, berrikuntzan eta ikerketan. Horri guztiari esker, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeari aurrea hartu, jarraipena egin eta berori aintzat hartu ahal izango du, baldin eta hezkuntza-zentzuarekin erabiltzen baditu sortzen zaizkion lan-egoeretara hobekien egokitzen diren prozedurak.

Esku-hartzearen Plangintza, Gizarte eta Hezkuntzako Zerbitzuen eta Programen Ebaluazioa eta Esku Hartzeko Proposamen Metodologikoak gaiak dira, hain zuzen, erabakiak hartzeko prozesuen balioa ulertzeko eta metodo eta teknika egokiekin horiei nola aurre egin jakiteko oinarritzko hiru ardatzak.

Gizarte eta Hezkuntzako Ikerketa eta Gizarte Hezkuntzako Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak gaiek, berriz, informazioaren analisisa eta interpretazioa egiteko eta esku-hartzea hobetzeko zein lanbide barneko hezkuntza-ezagutza osatzeko asmoz berori hedatzeko beharrezko tresnak ematen dizkigute



## 5. MODULUKO DIZIPLINARTEKO LANA (DILANA)

### 5.1. GAUZATU BEHARREKO ZEREGINA

Modulu honen DILANaren helburua, bestalde, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeetarako PROIEKTU bat osatzea da, horixe baita, hain zuzen, Gizarte Hezkuntzako profesionalen oinarritzko arloetako bat. Zeregin horrek, beraz, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeak egituratzeko beharrezkoak diren elementuak zein diren pentsatzera eta horiei buruzko erabakiak hartzera behartzen du ikaslea, eta nork bere gogoeta egin dezan baldintzak finkatzen ditu.

Zereginak egoera praktikoa planteatzen du, eta ikasleek Udalak egindako deialdi publiko bati erantzun beharko diote, era honetan:

Deialdiaren helburua:

*XXX udalak deialdia argitaratu du gizarte-hezitzaile, enpresa, entitate eta GKEentzat, XXX gaiari buruz esku-hartze proiektu baten proposamenak aurkez ditzaten. Zuen taldeak deialdi horretara proiektu-proposamen bat aurkeztea erabaki du. Talde bakoitzak zein udaletan eta esku-hartze arlotan kokatzen duen proiektua zehaztu behar du.*

Aurkezpen-formatua. Honako eskema edo gida honen arabera aurkeztu beharko da Proiektua:

**1. Sarrera (1-2 or.):**

- Taldearen motibazioa eta testuinguruan aurkitutako premia, proiektuak erantzun dionari.
- Proiektuaren aurkezpen sintetikoa

**2. Proiektuaren oinarriak (6-8 or.):**

- Arazoa mugatzea eta proiektua kokatzea
- Literatura zientifikoa berrikustea: testuinguru teorikoa eta ikerketa-testuingurua

**3. Helburuak (1-2 or.):**

- Helburuen egitura logikoa: orokorrak, espezifikoa...

**4. Metodologia (6-8 or.):**

- Oinarritzko printzipio metodologikoak
- Aukeratutako proposamen metodologikoa
- Jardueren deskribapena eta segida ezartzea, erabili beharreko teknikak eta tresnak adierazita

**5. Proiektua garatuko duen lantaldearen antolamendu-proposamena (1-2 or.).**

**6. Proiektuan hezkuntza-baliabideak eta -materialak aplikatzea eta erabiltzea (1-2 or.).**

**7. Aurrekontua (1-2 or.).**

**8. Ebaluazioa (6-8 or.)**

- Ebaluazioaren ikuspegia
- Erreferentziazko ereduak
- Tresnak eta teknikak

**9. Erreferentzia bibliografikoak (15 eta 30 artean)**

## 5.2. IKASGAI EK DILANARI EGINGO DIOTEN EKARPENA

- **Gizarte eta hezkuntzako ikerketa.**

Irakasgai honen helburua da ikaslea gai izatea gizarte eta hezkuntzako ikerketaren askotarikotasun metodologikoa ulertzeko, eta baita ikerketa bat diseinatzean eta praktikara eramatean irekitzen diren aukera guztiak ulertzeko ere. Moduluko diziplinarteko lanean, eta irakasgai honetatik bertatik, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeen proiektu bat osatzearekin, ikerketa mota eta metodologia ugari daudela onartzearekin eta hezkuntzaren alorrean ikerketa zientifikoaren prozesuan parte hartzen duten jarduerak identifikatzearekin lotutako iturri dokumentalak aztertzea eta aintzat hartzea izango da lehentasuna.

DILANean barnean taldean lana eginez, ikerketa bat egiteko ardatz hartuko den gai jakin bati buruzko literatura zientifikoan bildutako informazioa bilatzea, aztertzea, antolatzea eta osatzea izango da ikasleen egitekoa.

- **Esku-hartzearen plangintza.**

Gai honetan lortu nahi dena, hauex da, ikasleei hezkuntzaren alorrari aplikatutako plangintza teknikekin lotutako ezagutza teoriko praktikoa eskaintzea. Helburu honen lorpena behartzen gaitu, oinarrizko nozioak eta planifikazioko oinarrizko elementuak ekitera, baita egokitzea metodologi zorroztasunez dauden teknikak zein programaziozko prozedurak hezitzaileen betebeharrak zehatzei.

- **Esku-hartzeko metodologia-proposamen orokorrak, bazterketa-egoeretan**

Gaiaren edukiak, bere osotasunean, zerikusituz dauka DILANarekin. Hala, irakasgaiaren lehenengo gaia baliagarria izango zaie "Oinarrizko printzipio metodologikoa" ataleko justifikazioa egiteko. Gainerako gaiek hainbat proposamen metodologikotara hurbilduko dituzte ikasleak (jolasean eta animazioan, bitartekaritza, harreran eta babesean... oinarrizko metodologiak), lantalde bakoitzak, esku hartzeko bere programa finkatu duen moduan arabera (arazoaren adierazpena nola ulertu duen) bere aukera metodologikoa egin dezan, modu informatu eta justifikatua. Eta horri esker, gainera, "Aukeratutako proposamen metodologikoa" idazpuruari heldu ahal izango zaio. Horretarako, bat datozen jarduerak batzuk aukeratu beharko dira, eta denboran izango duten segida logikoa adierazi beharko da; betiere, horiek behar bezala garatzeko eskura dauden eta beharrezkoak diren bitartekoak kontuan izanda.

- **Gizarte eta hezkuntzako programen eta zerbitzuen ebaluazioa.**

Irakasgai honetatik, lanean jardungo dugu, gizarte eta hezkuntzako ebaluazioarekin zerikusia duten oinarriak, oinarrizko kontzeptuak, ereduak, metodoak eta teknikak ezagutzeko eta argitzeko.

Azken helburua, beraz, esku hartzeko hainbat testuingurutan aplikatutako ebaluazio-prozesuak diseinatzeko, planifikatzeko eta gerora garatzeko gai izatea da. Horretarako, banaka zein taldeka lan egin beharko da, honako hauetan:

- Ebaluazio-memoria errealak aztertu.
- Ebaluazio-proiektu bat osatzeko arazoak konpondu.
- Ebaluatze tresna eta proben aukeraketa egokia. Halaber, lanabesak eta probak, simulazioak edo rol-jokoak sortu, praktikan jartzeko, eta gerora feed-back egiteko.

- **Tecnologías de la información y la comunicación en educación social.**

Ezagutzaren Gizartean dauden bitarteko teknologikoa batzuk aurkeztu ondoren, udalerrietan, bailaretan edo eskualdeetan gaur egun gizartean esku hartzeko dauden proiektuetan hainbat teknologia digital erabiltzeko adibideak eskainiko dira irakasgai honetan. Kasu bakoitzean, teknologiek eskuratutako funtzio didaktiko guztiak aztertuko dira.

Plano praktikoagoan, ICTak euren proiektuan txertatzeari buruzko gogoeta egin beharko dute ikasleek, esku hartzeko euren proposamenak mundu birtualera iristeko moduko ikuspegi osotua har dezan. Ikasleek, ondorioz, definitu beharko dute zein diren erabiliko dituzten baliabide digitalak (blogak, gizarte-sareak, bideoak...), eta bide beretik, teknologia horiek erabiliko dituzten ekintza/jarduera zehatzak diseinatu beharko dituzte. Era berean, irakasgai honetan, beste hainbat bitartekoren erabilera ere landuko da, aurkezpenak eta DILAN bezalako defentsa publikoak hobetzeko.

## 5.3. DILANA GAUZATZEKO JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Proiektuaren prestaketari begira, eta ikasgai bakoitzean irakasle bakoitzak egokien deritzon dinamika landuko badu ere, moduluaren ikuspegitik DILANA garatzeko aplikatuko den enfokea Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren metodologiarekin zerikusia duena izango da. Horrela, irakasle-tutoreen laguntzarekin proiektu-talde bakoitza proiektua progresiboki garatzen joango da eta, prozesu horretan, ondoko taulan adierazitako zereginak aurkeztu beharko ditu jarraitako datetan.

ASTEA	Egiteko lanak		Aurkezteko produktuak (nori entregatu)
1	DILAN aurkeztu eta irakasgaien lana abiatu.		
	Proiektu-taldeen eraketa eta auto-antolakuntza.		1. <b>Fitxa:</b> kideak eta taldearen konpromisoak. (Koordinatzaileari)
2/14	Proiektua prestatzea, eskolan esleitutako saiotan eta eskolaz kanpoko taldeko lanean. Lanaren tutoretza	2 Astea	2. <b>Fitxa:</b> DILAN proiektuaren erregistroa (Koordinatzaileari)
		6 Astea	3. <b>Fitxa:</b> DILAN proiektuaren oinarriak (Tutoreari)
		12 Astea	Proiektuaren zirriborroa (Tutoreari)
15	Proiektuaren aurkezpen eta defentsa publikoa.		<b>Ahozko aurkezpena.</b> (Komisio baten aurrean)
16	Behin betiko proiektua tutoreari ematea.		<b>Behin betiko proiektua.</b> (Tutoreari)
Ordu-kop.:	30 ordu gaiko (10 aurrez aurreko + aurrez aurrekoak ez diren 20) = 1,2 kreditu		
	150 ordu guztira (50 + 100) = 6 kreditu		
Balioa:	DILANaren taldeko lanean lortzen den notak 2 puntuko balioa izango du irakasgai bakoitzean, guztira 10 puntu.		

### Proiektuaren defentsa

Lauhilekoko azken eskola-astean aurkeztu beharko dira proiektuak. Proiektuak ez du zertan behin betiko formaturik izan, baina tutorearen aldez aurretiko oniritzia beharko du ezinbestean. Proiektuaren aurkezpena eta defentsa moduluko bi/hiru irakaslerekin osatuko den tribunalaren aurrean egingo da. Aurkezpenak 15/20 minutuko iraupena izan beharko du, eta moduluan landutako teknologiak erabili beharko dira euskarri gisa. Jarduera honetan, irakasleek taldekideen ahozko gaitasunak ebaluatuko dituzte funtsean, eta horretarako, Gida honetako azken atalean jasota dauden irizpideak eta ebaluazio-matrizea hartu dituzte aintzat

### Egutegia

DILANerako saioen gutxi gorabeherako egutegia

Astea	Plangintza	Ikerketa	IKTak	Metodologia	Ebaluazioa
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					

\* Azken astean soilik aurkezpenak egiteko izango dira

## 5.4. TXOSTENAREN EGITURA

### Txostenaren atalak:

1. Azala, izenburua eta txostenaren egile(ar)en izena(k) adierazita
2. Aurkibidea, atal bakoitzari dagozkion orrialdeak zehaztuta
3. Txostenaren mamia (3.1 atalaren eskema)
4. Bibliografia
5. Eranskinak (dagokionean)

### Alderdi formalak:

- Txostenaren luzera: 20-30 orrialde. Ahal dela, bi aldeetatik inprimatu.
- Letra mota: erraz irakurtzeko modukoa (Times New Roman, Verdana, Calibri, Arial...). Dokumentu osoan letra mota berbera erabili beharko da.
- Txostenaren letra-tamaina: 12. Ataletako goiburuetarako tamaina handiagoa erabili beharko da (14), eta txikiagoa oinaldeetan (10).
- Lerroarteko espazioa: 1,5.
- Marjinak: goikoa eta behekoa: 2,5; ezkerrekoa eta eskuinekoa: 3 (Wordeko estandarra).
- Txostenaren orrialdeek goiburua eramango dute (atal bakoitzak berea: atariko, proiektuaren oinarriak etab.); baita oinaldea ere (zenbaketa).
- Taulak eta irudiak behar bezala zenbatuta joango dira, deskribatuko dituzten oinekin eta testuan erreferentzia dutela.
- Atal bakoitzak orrialde bakoiti berrian hasi beharko du.
- Bibliografia-aipuak eta erreferentziak, APA 7 araudiari egokituta.

### Ez da onartuko:

- Espresuki aipatu gabe, beste egile batzuen testuak kopiatzea (“moztu eta itsatsi”). Hitzez hitzeko aipuak kakotxa artean edo letra etzanean joango dira.
- Ortografia-akatsak.
- Gaizki aurkeztutako txostenak (zikinak, testuan tinta falta dutenak...).

6. DILANA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

PROIEKTUTALDEA:								
Taldearen gaitasunak kalifikatzeko matrizea	Ponderazioak	Sinpleegia, okerra, ez-baliagarria	Landuxeagoa, baina ez nahikoa, akatsen bat edo beste, ez da	Ondo landua, egokia, baina hobetu daiteke	Bikaina, oso landua, osotua, originala eta sormenezkoa	Eraitza	Guztira	
		1-3	4-5	6-8	9-10			
Komunikazio-gaitasuna	Aurkezpenaren antolaketa eta dinamizazioa							
	Ahozko adierazpena eta keinu bidezko komunikazioa							
	Laguntza-baliabideen erabilera							
	Gaia menderatzea. Proiektuen proiektuaren edukien aurkezpen egituratua. Erantzun gaitasuna							
	<b>Atalaren ponderazioa:</b>	<b>0.4</b>						

Proiektu-diseinuaren gaitasun teknikoak	Proiektuaren oinarriak						
	Esku-hartzearen diseinu metodologikoa						
	Laguntza-teknikak, -tresnak edo bitartekoak sortzea						
	Ebaluazioaren diseinua						
	Egitura formala eta proiektuaren garapen maila						
	Taldearen kohesioa eta lanaren garapenean erakutsitako jarrera						
<b>Atalaren ponderazioa:</b>	<b>0.6</b>						

Guztira Nota:

Ikaskuntzaren emaitzak	Ebaluazio irizpideak
IE1. Proiektua egin nahi den gai jakin bati buruz literatura zientifikoan jasotako informazioa bilatzea, aztertzea, antolatzea eta lantzea.	Ikaskuntzaren emaitza hori praktikan aplikatzea tokiko eremuan gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko PROIEKTUA diseinatu eta egiteko.
IE2. Plangintzaren funtsezko elementuak ezagutzea, proiektu batean programazio-teknikak eta -prozedurak zorrotasun metodologikoz erabiltzeko.	Ikaskuntzaren emaitza hori praktikan aplikatzea tokiko eremuan gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko PROIEKTUA diseinatu eta egiteko.
IE3. Oinarrizko printzipio metodologikoak identifikatzea, ekintza-metodologiak aukeratzea eta gizarte- eta hezkuntza-proiektua ezartzeko jarduera egokiak antolatzea.	Ikaskuntzaren emaitza hori praktikan aplikatzea tokiko eremuan gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko PROIEKTUA diseinatu eta egiteko.
IE4. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen testuinguruan aplikatutako ebaluazio-prozesuak diseinatzea, planifikatzea eta garatzea.	Ikaskuntzaren emaitza hori praktikan aplikatzea tokiko eremuan gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko PROIEKTUA diseinatu eta egiteko.
IE5. Proiektuan erabiliko dituzten baliabide digitalak (blogak, sare sozialak, bideoak...) definitzea eta teknologia digitalak txertatuko dituzten ekintza zehatzak diseinatzea.	Ikaskuntzaren emaitza hori praktikan aplikatzea tokiko eremuan gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko PROIEKTUA diseinatu eta egiteko.
IE6. Tokiko eremuan gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko PROIEKTUA egitea, oinarrizko bost elementu jasoz: proiektuaren oinarriak, helburuak, metodologia, baliabideak eta ebaluazioa.	<p><i>Proiektua diseinatzeko gaitasun teknikoa:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <i>Proiektuaren oinarriak.</i></li> <li>▪ <i>Esku-hartzearen diseinu metodologikoa.</i></li> <li>▪ <i>Laguntza-teknikak, -tresnak edo -baliabideak lantzea.</i></li> <li>▪ <i>Ebaluazioaren diseinua.</i></li> <li>▪ <i>Proiektu-txostenaren egitura formala.</i></li> <li>▪ <i>Taldearen kohesioa eta lanean erakutsitako jarrera.</i></li> </ul>
IE7. AlMaren ahozko azalpena antolatzea eta egitea, keinuen bidezko komunikazioa eta euskarri lagungarriak erabilita, edukien sekuentzia egituratua eginda eta erantzuteko eta defendatzeko gaitasuna erakutsita.	<p>Komunikatzeko gaitasuna:</p> <p>Aurkezpena antolatzea eta dinamizatzea.</p> <p>Ahozko adierazpena eta keinuzko komunikazioa.</p> <p>Laguntza-baliabideak erabiltzea.</p> <p>Gaia menderatzea.</p> <p>Proiektuaren edukien azalpen egituratua.</p> <p>Erantzuteko gaitasuna.</p>

Gizarte Hezkuntzako Graduaren IV moduluko Gida, modulu horretako irakasle taldeak eginda.